

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Moteltze esanguratsua Gizarte Segurantzako afiliazioaren igoeran

Gizarte Segurantzako afiliazioaren martxoko datuek aurreko bost urteetan zifrek markatu zuten egonkortasunarekiko haustura ekarri dute, eta urte arteko hazkundea %0,7raino murriztu da, gutxi gorabehera urtarileko eta otsaileko balioak baino puntu bat beherago. Gainera, kopuruak profesionalak ez diren zaintzailerik gabe agertzen badira, urtetik urterako aldakuntza apur bat negatiboa da (-% 0,1). Hau da, azken hamabi hilabeteetan afiliazioan gertatu den igoera guztia kolektibo horri bakarrik zor zaio, Espainiako gobernuak Gizarte Segurantzari bere kuotak ordaintzeko hartutako erabakiak mesede egin baitio. Generoaren arabera, emakumeen kasuan, urte arteko hazkunde tasa %1,9koa izan da (%0,5 zaintzailerik gabe); gizonen kasuan, berriz, -% 0,3koa (-% 0,6 zaintzaileak deskontatuz gero).

tibo horri bakarrik zor zaio, Espainiako gobernuak Gizarte Segurantzari bere kuotak ordaintzeko hartutako erabakiak mesede egin baitio. Generoaren arabera, emakumeen kasuan, urte arteko hazkunde tasa %1,9koa izan da (%0,5 zaintzailerik gabe); gizonen kasuan, berriz, -% 0,3koa (-% 0,6 zaintzaileak deskontatuz gero).


GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

MARTXOKO AFILIAZIOA


+%



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO

EMAKUMEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO


GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA INDUSTRIAN


Urte arteko aldakuntza tasa



Martxoan jarduerak izan zuen galgak kalte ekarri zion ekoizpen sektore guztiei. Industriak, lehenetik ere, bazuen langileen kopurua murrizteko joera, eta hilabete horretan joera hori areagotu egin da, $-\% 1,3$ ko balioa jaso arte. Eraikuntza, berriz, oraindik tasa positibotik dago ($\%0,2$), baina aurreko kopuruetatik urrun gelditu da. Bestalde,

AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



zerbitzuek $\%2,5$ eko tasa eskuratu zuten otsailean eta $\%1,4$ bakarrik martxoan. Are gehiago, tasa hori $\%0,3$ ra mugatzen da, zaintzaileen eragina kontuan hartzen ez bada. Afiliatuen kopurua nabarmen handitzen diren jarduera adarrak administrazio publikoari lotutakoak dira.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK.

	2019ko martxoa	2020ko martxoa	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	960.275	967.389	7.113
Industria manufakturagileak	176.314	174.072	-2.242
Merkataritza	137.300	135.597	-1.702
Osasun arloko jarduerak	94.514	105.385	10.871
Hezkuntza	75.118	76.005	887
Ostalaritza	66.662	65.932	-730
Administrazio jarduerak	65.304	64.316	-988
Eraikuntza	56.579	56.676	97
Lanbide jarduerak	56.513	57.309	796
Administrazio publikoa	48.328	49.488	1.160
Garraioa	41.959	42.233	274
Etxeko langileak	30.317	29.581	-735
Bestelako zerbitzuak	28.592	28.035	-557
Informazioa eta komunikazioa	22.978	23.277	299
Finantza jarduerak	18.106	17.761	-345
Jarduera artistikoak	16.700	16.929	229
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.539	12.275	-264
Or horniketa	5.980	6.198	219
Higiezin jarduerak	4.035	4.182	147
Energia horniketa	1.822	1.522	-300
Erauzketa industriak	557	556	-1
Lurraldez kanpoko erakundeak	59	58	-1

Iturria: Lana, Migrazioak eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

